

## **I. eranskina. Kalitate eta ingurumen politika**

**LEITZARAN GRAFIKAK, S.M.** enpresa arte grafikoen negozioari lotuta dago, eta 2001ean sortu zen. Geroztik, sektoreko enpresa inportanteenetako bat da. Gure politika estrategikoan, oinarri hauek ditugu:

- Arreta bezeroarengan jartzen duen zerbitzua.
- Etengabe berritzen diren prozesuak.
- Ingurumenarekiko errespetua.
- Langileen kalitate ona eta etengabeko prestakuntza.

### **Arreta bezeroarengan jartzen duen zerbitzua parte interesatuekin lankidetzan**

Bezeroak eta parte interesatuak prozesu guztietan hartzen du parte, eta bere erara molda dezake zerbitzua.

Bezeroak erabat konforme uzten saiatzen gara, eta haren asmoak gainditzen; azken batean, zerbitzu berezia ematen.

### **Etengabe berritzen diren prozesuak**

Sektoreko lider garen aldetik, gure mailari dagokion zerbitzua emateko, ekoizpen prozesuak etengabe hobetzeko ahalegina egiten dugu, eta merkatuko teknikarik hoberenak bilatzen ditugu.

### **Ingurumena**

Ingurumenerako kaltegarri izan daitekeen edozein ondorio identifikatzen eta murrizten saiatzen gara, eta gure jarduerak kutsa dezaketena eragozten.

Baliabideen erabilera jasangarriarekin klima aldaketa arindu eta egokitzen eta ekosistemen bioaniztasuna babesten laguntzen dugu.

Sortzen diren hondakinak gutxitu, berrerabili eta birziklatu egiten ditugu, amaieran ingurumenari eragindako kaltea txikiagoa izan dadin.

Horretaz gainera, bete egiten ditugu bai legeak eta bai erakundeak bestela hartzen dituen konpromisoak; besteak beste, UNE-EN-ISO 9001 eta UNE-EN-ISO 14001 araei lotutakoak.

### **Langileen kalitate ona eta etengabeko prestakuntza**

Helburuak erdiesteko, denok inplikatu beharra dugu, daukaguna ematen eta prestakuntza jasotzen, produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko eta hobetzeko; hori da gure bezeroentzako bermerik handiena.

Erakundeko sail guztiak etengabe prestatuta edukitzea da gure helburua; horrela, prest egongo gara eguneroko lanean parte hartu eta irtenbideak proposatzeko eta bilatzeko.

Politika hau gure erreferentzia esparrua da Kudeaketa Sistema Integratuaren helburuak zehazteko orduan, eta etengabe aztertu eta egokitzen dugu.

Iñigo Illarramendi

(Zuzendari kudeatzailea)